

Ikusi gaitzazuen desagertuko gara, entzun gaitzazuen isilduko gara

Apirilaren 21ean eta 22an greba digitala

Euskal kulturgintzaren ekosistema osatzen duzuen eragile guztioi: sortzaileoi, antolatzaile eta bitartekariooi (herri-mugimendu, erakunde publiko, ekimen pribatu/industria), komunikabideoi, hezitzaileoi (hezkuntza-arautu, ez-arautu, familia/etxegiroa), kulturzaleoi, herrikideoi:

Apirilaren 21ea eta 22an interneten kultur edukirik ez partekatzekeo deia luzatu gura dizuegu. Horrekin batera, gogoetarako hainbat galdera eta proposamen plazaratuko ditugu.

Pandemiaren eraginez ezarri den herritarren itxialdi egoerak ekarri du, beste hainbat erabakien artean, kultur programazio guztiak bertan behera uztea. Lehendik kulturgileen, sortzaileen zein artisten egoera nahiko prekariora bazen, jazoera berri honek larrialdia areagotzea ekarri du. Emanaldiak eta bestelako kultur lanak bertan behera utzi beharra modu latzean zigortzen ari da euskal kulturgintzaren ekosistema. Horren jakitun, kulturgintzaren ekosistemako hainbat eragilek neurri sorta zehatzak proposatu dituzte, bai larrialdiak dirauen artean hartzekoak, baita etorkizunean gure kulturgintzaren ekosistema osasuntsu iraunaraziko dutenak. Larrialdi egoera ez-ohiko honek eragindako krisiari elkarrekin aurre egiteko deia luzatu diegu erakunde publikoei. Udal batzuek salbu, gainontzekoek muzin egin diote gure proposamenari. EAEko Jaurlaritzak, esaterako, ez dituela kulturgintzaren ezaugarri bereizgarriei erantzuteko neurririk hartuko erantzun digu. Paradigma aldatzeko ordua da, eredia aldatzeko ordua da, patroia aldatzeko ordua da.

Itxialdi garaiotan, kultur ekimenak etengabe zabaltzen ari dira sare telematikoetan eta hedabideetan. Zuzeneko emanaldiak, grabatuak, irakurketa aholkuak, dantza ikastaroak..., gehien gehienak deialde. Sortzaileok egoeraren jakitun ari gara duguna herrikideekin eskuzabaltasunez partekatzen eta oraingoan, trukean kulturaren balio soziala hausnartzeko eskatu gura dizuegu. Larrialdi egoera honek

aurretik euskal kulturgintzarekiko atxikimendurik ez zenuten herrikide asko euskal kulturgintzara hurreratzea ekarri du. Askok denbora emateko aukera legez hautatu duzue, entretenimendu gisa. Kulturgileontzat, ostera, entretenimendu hutsa baino, gure sormen lanek bestelako balioak partekatzen dituzte: Kultur esperientziek eta kultur imajinarioek munduan leku bat egiten laguntzen digute, barne-mundua elikatzen digute, zentzuaren eraikuntzan laguntzen digute, geure buruaren eraikuntzan laguntzen digute, baita mundua ulertzen ere, trukea sustatzen dute, jolaserako espazioa sortzen dute, arakatzera gonbidatzen gaituzte, eta batez ere, komunitate bateko kide sentiarazten gaituzte. Hizkuntzak egiten gaitu pertsona, kulturak herritar. Zer gertatuko litzateke aktorerik, idazlerik, dantzaririk, musikaririk, margolaririk ez balego? Zer jendarte genuke antzokirik, liburutegirik, kultur gunerik gabe? Nola antolatuko genuke hezkuntza sistema sortzailerik gabe? Esan bezala, egunotan lan horien garrantzia ikusten ari gara sareetan; herritarren itxialdiaren aringarri suertatzen ari direlarik. Baina, itxialdia amaitzerakoan zer gertatuko da? Nola berrantolatuko dugu kulturgintza? Erakunde publikoetan arduetan dauden alderdi politikoek euren burua kulturgintzaren ekosistematik kanpo kokatzen jarraituko dute inork aitortu ez dien gidaritzan edo gure parean eseriko dira proposatzen diegun mahai-tekniko iraunkorrean guztion artean erabaki dezagun zer den estrategikoa euskal kulturgintzarentzat eta zein neurri hartu behar ditugun helburu estrategiko horiek erdiesteko? Alderdi politikoetako arduradun horiek, euren burua ekosistematik kanpo kokatuta, kulturgintzari duen balio soziala aitortuko diote edo orain arte legez soilik entretenimendurako jarduera edo sektore gisa hartuko gaituzte?

Jakitun gara birtualki baino burutu ezin dugun greba honen ostean, konfinamendua amaitutakoan, askoz eraginkorragoak izango diren ekimenak abiaraziko dituguna. Oso argi dugu COVID-19ak eragindako larrialdiak kulturgintzan eragin(go) dituen kalteei ezin zaiela neurri koiunturalekin erantzun. Arestian esan dugun legez, paradigma, eredu, patroia da errotik eraldatu nahi duguna.

Horren gaineko arreta deitzeko eta ezinbesteko gogoeta bultzatu nahian, hainbat sortzailek ekimen zabal honetan parte hartzeko deia luzatu gura dizuegu, euskal herritarrok gogoeta egin dezagun euskal kulturgintzaz. Horregatik bi egunez, apirilaren 21ean eta 22an,

desagertu egingo gara, oihala beheratuko dugu eta sareetan zein hedabideetan ez dugu inongo ekimenik egingo, ez dugu zuzeneneko edo grabatuko emanaldirik ez eskeiniko ez partekatuko. Oihala beheratuko dugu eta gure ahotsa isilduko dugu, entzun gaitzazuen.

SINATZAILEAK:

1. Agin Laburu
2. Aguxtin Alkhat
3. Ainara Azpiazu *Axpi*
4. Ainara Guevara
5. Ainara Lasa
6. Ainara Murguia Santin, Iker Urutiaga Macho (*Antxo eta Pantxo* pailazoak)
7. Ainhoa Aduriz
8. Aintzane Usandizaga
9. Aitor Etxeberria
10. Aitor Gorosabel
11. Aitor Narbaiza
12. Aitor Sarriegi Galparsoro
13. Alaia Martin
14. Alazne Payueta
15. Alex Sardui
16. Amaia Agirre
17. Amaia Arriaga
18. Amaia Elizagoien, Leire Celestino (*Amelie eta Xirrikitu*en *Jostunak*)

19. Amaia Iturriotz
20. Amaia Ramirez Garcia
21. Ander Basaldua Castellanos
22. Ander Fernandez
23. Ander Solozabal Kortabarria
24. Ander Zulaika
25. Andrea Arrizabalaga Lasa, Oihane Espuñez Garcia, Amaia Navascues Alberdi, Ana Revueltas Andres, Mainer Urrutia Goñi (ARTAZIAK arte-hezkuntza kooperatiba)
26. Ane Garai
27. Ane Garcia
28. Ane Gebara Gonzalez de Axpuru
29. Ane Mendizabal
30. Ane Zabala
31. Anita Maravillas taldea
32. Antton Aranburu
33. Arantxa Arratibel
34. Arantza Santesteban
35. Arkaitz Miner
36. Artedrama
37. Arrate Illaro
38. ARTgia
39. Asier Serrano
40. Askoa Etxebarrieta *La Pulga*
41. ATX Teatroa konpainia

42. *Baneki* taldea
43. Baratza aretoa
44. Beatriz Egizabal Ollokiegi
45. Beñat Gastelumendi
46. Beñat Ibaieta
47. Beñat Sarasola
48. *Berbaz* sorkuntza aldizkaria
49. Berto Arrieta
50. Birkite Alonso
51. Bixente Martinez
52. Burubio kultur elkarte
53. Dana Moya
54. Edorta Jimenez
55. EHAZERen zuzendaritza (Eneritz Artetxe, Maider Galarza, Josu Zubia, Arantzazu Fernandez, Oier Guillan).
56. Eider Eibar
57. Eider Iturriaga
58. Eider Rodriguez
59. Elena Olave
60. Eli Pagola
61. Eñaut Elorrieta
62. Eneko Fernandez
63. Eneritz Furyak
64. Eneritz Gorrotxategi
65. Erika Lagoma

66. Erlantz Mata
67. *Eskola* Dantza Taldea
68. Estitxu Pinatxo
69. Eukene Larrea, Nerea Martija Apraiz (*Sudurkeriak* sorkuntza taldea)
70. Fermin Muguruza
71. Fito Rodriguez Bornaetxea
72. Gaizka Chamizo Mendikote
73. Gaizka Peñafiel
74. Gaizka Salazar
75. Galder Perez
76. Garazi Ansa
77. *Gora Bihotzak* antzerki taldea
78. Gorka Basterretxea
79. Gorka Belasko
80. Gorka Etxeberria Casqueiro
81. Gorka Fernandez, Iñigo Komadü, Ion Arenas, Joseba Urruela, Markel Andia, Ander Tejerina, Inhar Lozano, Adrian Lopez, Egoitz Palacios, Gorka Suaia (Suaia eta Ama Rebel)
82. Gorka Urbizu
83. Gotzon Barandiaran
84. Gotzon Lizaso Rezabal
85. Gurutze Etxebarrieta Eginola, Oier Asla Iglesias (*Asla* taldea)
86. Haimar Arejita
87. Haizea Barcenilla

88. Haria kolektiboa
89. Harkaitz Martinez de San Vicente
90. Hasier Oleaga
91. Ibai Arrieta
92. Ibai Maritxalar
93. Iban Urizar *Amorante*
94. Idoia Gereñu
95. Idoia Hernandez Toledo
96. Idurre Eskisabel
97. If Matxikote
98. Igor Arzuaga
99. Igor Elortza
100. Igor Rezola
101. Iker Lauroba
102. Iker Tolosa
103. Iker Uriarte Lopez de Vicuña
104. Ilargi Arregi Iturregi
105. Imanol Agirre
106. Iñaki Landa
107. Iñaki Modus Operandi
108. Iñaki Ziarrusta
109. Ion Arruabarrena Altuna
110. Ion Chavez
111. Ion Martinez *Txiki*, Saioa Royo (*Aldatzen Laguntzen* antzerki taldea)

112. Ion Olano Carlos
113. Iraia Elias
114. Irantzu Lekue
115. Irati Lekue
116. *Irazan* antzerki gunea
117. Ismael Manterola
118. Itsasne Monasterio, Eneko Fernandez, Mikel del Castillo, Eskolunbe Puente, Koldo Plazas, Ibai Criado, Gorka Gomez (*Zaratak 18* elektrotzaranga)
119. Itsaso Etxebeste
120. Itziar Elias
121. Itziar Hormila
122. Itziar Rekalde
123. Ixi Garcia
124. Izarne Zelaia Arratibel
125. Izaskun Lapaza
126. Jaione Martinez
127. Javi Ulla
128. Jon Basaguren
129. Jon Gurrutxaga
130. Jon Martin
131. Jon Maya
132. Jon Piris
133. Jone Rubio
134. Jone Uria

135. Joseba Irazoki
136. Joseba Larratxe
137. Joserra Senperena
138. Josu Bergara
139. Josu Kamara
140. Josune Velez de Mendizabal
141. Joxemari Carrere
142. Juan de Diego
143. Juan Ibarrondo
144. Juan Luis Zabala
145. Juantxo Zeberio Etxetxipia
146. Jule Goikoetxea
147. *Katuska* antzerki taldea
148. Kattalin Miner
149. Keu Agirretxea
150. Kontxa Elorza
151. Kultiba elkarte kooperatiba
152. La Mostranka
153. Lander Garro
154. Laura Penagoz
155. Leire Diaz de Gereño
156. Leyre Cavalle
157. Maddi Ane Txoperena
158. Maialen Lujanbio
159. Mainer Ansa Oleaga

160. Maite Arroitauregi
161. Maite Gurrutxaga
162. Maite Larburu
163. Maite Martinez de Arenaza, Tania Arriaga Azkarate (Galeria La Taller)
164. Manex Fuchs
165. Marco Sanz
166. Mari Luz Esteban
167. Maria Rivero, Erik Perez, Joseba Urruela, Gorka Chamorro (Siroka)
168. Marta Zelaia
169. Mertxe Isasti
170. Mikel Antza
171. Mikel Inuntziaga *Inun*
172. Mikel Markez
173. Mikel Martinez
174. Mikel Urdangarin
175. Mikel Zubiria Eizagirre
176. Miren Alcala, Urko Pescador, Ainara Gurrutxaga (Dejabu)
177. Miren Amuriza
178. Miren Artetxe
179. Miren Tirapu
180. *Mukuru* kolektiboa
181. Nagore Martinez
182. Nagore Michelena

183. Naia Muñoz Murua
184. Natalia Albeniz
185. Natxo Rodriguez
186. Nefer Olaizola
187. Nerea Ariznabarreta Izcue
188. Nerea Elustondo
189. Nerea Izagirre Elizondo
190. Oier Arantzabal
191. Oihane Perea
192. Onintza Zabala Irastortza
193. Paddy Rekalde
194. Patxi Zubizarreta
195. Pello Gorrotxategi
196. Piko Zulueta
197. *Pirritx, Porrotx eta Marimotots* pailazo taldea
198. Potx eta Lotx pailazoak
199. Rafa Rueda
200. Raquel Murgiondo Gastañares
201. Raul de la Fuente Calle
202. Ruper Ordorika
203. Saioa Aizpurua Arribas
204. Saioa Iribarren Muñoz
205. Saioa Olmo
206. Sergio Azkarate
207. Sideburn Society

208. Taupaka elkartea
209. Tio Teronen Semeak
210. Ttarla dantza-taldea
211. Txakur Gorria Sormen Kolektiboa (Marine Arbeo Astigarraga, Nerea Ibarzabal Salegi, Ane Labaka Mayoz, Malen Amenabar Larrañaga)
212. Txomin L. Aramaio *Dj Elepunto*
213. Unai Elizasu
214. Unai Iturriaga
215. Unai Lopez de Armentia
216. Urtzi Moreno, Bittor Meabe, Iker Arana, Markel Fuentes, Kimo SounDZ, Mikel Fernandez *Efe* (*Mr Pongo* taldea)
217. Uxue Alberdi
218. Uxue Bereziartua Lonbide (Berexi Art)
219. Xabi Bastida
220. Xabier Artola
221. Xabier Alvarez Yeregui
222. Xabier Vesga Elizalde
223. Xabier Zeberio
224. Ximun Fuchs
225. Yolanda Arrieta
226. Yone Estivariz
227. Yoseba Peña
228. Yurre Ugarte
229. Zaloa Ipiña
230. Ziztada & Rlantz

